## PRESUPUESTOS GENERALES 2026

**AURREKONTUAREN MEMORIA, EDUKIAREN ETA AURREKO AURREKONTUEN ALDEAN GERTATU DIREN ALDAKETA NAGUSIEN BERRI EMATEN DUENA.**

(3/2004 Foru Araua, otsailaren 9koa, Arabako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoaren 6.1.d artikulua).

***1. – SITUACION ECONOMICA.***

Se presenta un presupuesto con EQUILIBRIO de ingresos y gastos por 1.127.550,24 €.

Dentro del contexto general, podemos decir que la situación económica del Ayuntamiento es saneada, presentándose un presupuesto sin déficit inicial, es decir, los ingresos por operaciones corrientes son superiores a los gastos de igual naturaleza.

***2.- SITUACION FINANCIERA.***

En principio, puede decirse que la fluidez y periodicidad de la recaudación de los recursos disponibles, permiten atender el puntual pago de los gastos, por lo que no es de esperar que se produzcan a lo largo del año tensiones o desfases de Tesorería.

***3.- CRITERIOS TENIDOS EN CUENTA PARA SU ELABORACION.***

Para la determinación de gastos corrientes y servicios se han tenido en cuenta, los acuerdos adoptados para la creación o modificación de servicios y demás antecedentes necesarios, información sobre la ejecución del Presupuesto del año anterior, las obligaciones de tracto sucesivo, bien por imposición legal o en virtud de compromisos aprobados, y, en su

## 2026KO AURREKONTU OROKORRAK

**AURREKONTUAREN MEMORIA, EDUKIAREN ETA AURREKO AURREKONTUARI DAGOKIONEZ EGINIKO ALDAKETA NAGUSIEN BERRI EMATEN DUENA.**

(Arabako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauaren 6.1.d artikulua).

***1. – EGOERA EKONOMIKOA.***

Aurrekontua sarreretan eta gastuetan OREKATUA aurkezten da, 1.127.550,24 €tan.

Testuinguru orokorraren baitan, esan dezakegu Udalaren egoera ekonomikoa saneatuta dagoela. Aurrekontuan, hasiera batean, ez dago defizitik; hau da, diru-sarrera arruntak gastu arruntak baino handiagoak dira.

***2.- EGOERA FINANTZARIOA.***

Printzipioz, esan daiteke dauzkagun baliabideen bilketa etengabea eta aldizkakoa dela; hortaz, horri esker, gastuak garaiz ordain daitezke. Ondorioz, ez da espero urte osoan larritasun edo desorekarik gertatzea Diruzaintzan.

***3.- AURREKONTUA EGITEKO KONTUAN HARTUTAKO IRIZPIDEAK.***

Gastu arruntak eta zerbitzuak zehazterakoan, kontuan hartu dira zerbitzuak sortzeko edo aldatzeko hartutako erabakiak eta gainerako beharrezko aurrekariak, iazko aurrekontua betearazteari buruzko argibideak, hurrengo bitarteko betebeharrak, bai legez ezarrita daudelako, bai onetsitako konpromisoen arabera, eta, nolanahi



BENETAKO KOPIA, Egiaztatze Kode Seguruaren bidez egiazta daitekeena helbide honetan: / COPIA AUTÉNTICA que puede ser comprobada mediante el Código Seguro de Verificación en esta dirección:
https://udalenegoitza.araba.eus/barrundia/validacionDoc/?entidad=BARRUNDIA
R0144708b01518185ca07e91ce0b0b04N

| Agiriaren sinatzailea: / Documento firmado por: | Kargua / Cargo: | Data / Fecha: |
|---|---|---|
| IGOR MEDINA ISASA (BARRUNDIAKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE BARRUNDIA) | Alkatea / Alcalde | 24/11/2025 13:07 |

BENETAKO KOPIA, Egiaztatze Kode Seguruaren bidez egiazta daitekeena helbide honetan: / COPIA AUTÉNTICA que puede ser comprobada mediante el Código Seguro de Verificación en esta dirección: https://udalenegoitza.araba.eus/barrundia/validacionDoc/?entidad=BARRUNDIA
R0144708b01518185ca07e91ce0b0b04N



caso, los ingresos estimados en función de su rendimiento en el ejercicio anterior.

Estas propuestas han sido ordenadas según la naturaleza económica del gasto, diferenciando la actividad inversora, de la de gasto corriente, han sido priorizados en función de su urgencia social, y siempre dentro del margen de los ingresos previstos.

***4.- OBJETIVOS QUE SE PRETENDEN LOGRAR CON EL PRESUPUESTO.***

El Presupuesto del ejercicio 2026, como tal programa de actuación económica de la Corporación, está orientado a la optimización de los recursos mediante el control, racionalización y contención del gasto corriente.

Dentro de este objetivo general se pretende mantener el funcionamiento de los servicios en una época de restricciones económicas.

Y respecto del gasto de capital, se pretende dotar una serie de partidas para desarrollar el proyecto de comedor escolar en el piso superior del edificio que alberga actualmente la Haurreskola, además, se continua con la rehabilitación parcial del edificio del polideportivo mediante obras menores, y, por último, se va a financiar la última anualidad del largo expediente del Plan General de Ordenación Urbana.

***5.- CONTENIDO DEL PRESUPUESTO DE GASTOS.***

+ CAPITULO I.- Remuneraciones de personal.

El Capítulo 1, de remuneraciones de personal, con un importe de 447.198,81 €, supone un 39,66% del Presupuesto, siendo de destacar:

ere, aurreko ekitaldian izan zuten etekinen arabera zenbatetsitako diru-sarrerak.

Proposamen horiek gastuaren zenbatekoaren arabera ordenatu dira, eta inbertsio-jarduera eta gastu arruntarena bereizi dira; gizartean duten premiaren arabera lehenetsi dira, eta, betiere, aurreikusitako diru-sarrerek ematen dituzten aukeren barruan.

***4.- AURREKONTUAREKIN LORTU NAHI DIREN HELBURUAK.***

2026 ekitaldiko aurrekontua, Udalbatzak ekonomia-arloan jarduteko programa gisa, baliabideak hobetzera bideratuta dago, eta hori lortuko da gastu arrunta kontrolatuz, arrazionalizatuz eta horri eutsiz.

Helburu orokor horren barruan, murrizketa ekonomikoak egiten ari diren garai honetan, zerbitzuen funtzionamenduari eutsi nahi zaio.

Eta kapital-gastuari dagokionez, gaur egun Haurreskola hartzen duen eraikinaren goiko solairuan eskola-jantokiaren proiektua garatzeko zenbait partida hornitu nahi dira. Gainera, kiroldegiaren eraikinaren zati bat zaharberritzen jarraituko da obra txikien bidez, eta, azkenik, Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren espediente luzearen azken urterokoa finantzatuko da.

***5.- GASTUEN AURREKONTUAREN EDUKIA.***

+ I. KAPITULUA.- Langileen ordainsariak.

1. kapituluak, langileen ordainsariei buruzkoak, 447.198,81€-ko zenbatekoa jasotzen du. Kapitulu honen zenbatekoa aurrekontuaren



| Agiriaren sinatzailea: / Documento firmado por: | Kargua / Cargo: | Data / Fecha: |
|---|---|---|
| IGOR MEDINA ISASA (BARRUNDIAKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE BARRUNDIA) | Alkatea / Alcalde | 24/11/2025 13:07 |

BENETAKO KOPIA, Egiaztatze Kode Seguruaren bidez egiazta daitekeena helbide honetan: / COPIA AUTÉNTICA que puede ser comprobada mediante el Código Seguro de Verificación en esta dirección:
https://udalenegoitza.araba.eus/barrundia/validacionDoc/?entidad=BARRUNDIA
R0144708b01518185ca07e91ce0b0b04N

%39,66 da. Hona hemen nabarmendu beharrekoa:

.- Se presupuesta la plantilla para todo el ejercicio 2026, comprendiendo todos los puestos de trabajo reservados a funcionarios/as (interinas y de habilitación estatal) y personal laboral (fijo y temporal); además, se incluye la liberación de la Alcaldía-Presidencia.

.- 2026 ekitaldi osorako langileen aurrekontua egin da, eta horren barruan sartu dira funtzionarioentzako lanpostuak (jardunekoak eta estatuko gaikuntzakoak) eta lan-kontratudun langileen lanpostuak (finkoenak eta aldi baterakoenak); halaber, Alkate-Udalburuaren dedikazioa.

<u>No se incluye la dotación para el puesto de Técnico/a de Administración General.</u>

<u>Ez da sartu Administrazio Orokorreko teknikariaren lanposturako zuzkidura.</u>

.- Se aumentan las retribuciones de las personas empleadas públicas en un 3% (a la espera de la aprobación definitiva de los Presupuestos Generales del Estado).

.- Herri-administrazioko langileen ordainsariak %3 igo dira (Estatuaren Aurrekontu Orokorren behin betiko onarpenaren esperoan).

+ CAPÍTULO II.- Compra de Bienes Corrientes y Servicios.

+ II. KAPITULUA.- Ondasun arruntak eta zerbitzuen erosketa.

Con una previsión de 266.311,64 € para el presente ejercicio, supone el 23,61 %.

Ekitaldi honetarako, 266.311,64 €-ko aurreikuspena egin da; beraz, % 23,61 da.

A continuación, se exponen las principales variaciones habidas en este capítulo:

Jarraian, kapitulu honetan egondako aldaketa nagusiak azalduko dira:

.- Se mantienen las partidas para reparaciones y mantenimiento de la Haurreskola, Bulego Orokorrak, instalaciones deportivas, centro sociocultural, Eskola Txikia y Patioko Benta.

.- Haurreskolaren, Bulego Orokorren, kirol instalakuntzen, Eskola Txikiaren eta Patioko Bentaren konponketarako eta mantenurako partidak mantentzen dira.

.- Se mantienen los gastos por suministros a los diversos edificios municipales toda vez que se incluyen los gastos derivados de suministro de astillas (proyecto de District Heating).

.- Udal-eraikin batzuk zuzkitzeko gastuak mantendu egin dira, ezpal-zuzkiduratik eratorritako gastuak sartu diren heinean (District Heating proiektua).

.- Se mantienen las partidas de “Calendario y revista municipal” y “Gastos jurídicos”; este último gasto hace referencia a los originados básicamente por los contencioso-administrativos interpuestos contra el Ayuntamiento.

.- “Egutegia eta udal aldizkaria” eta “Gastu juridikoak” partidak mantentzen dira; azken honek, Udalaren aurka tartekatutako administrazioarekiko auziei dagozkielarik gehienbat.

.- Se aumenta la dotación correspondiente a la partida de

.- Berdintasun jarduerak partidari dagokion zuzkidura gehitu da.

2026KO AURREKONTU OROKORRAK INBERTSIOAK

BENETAKO KOPIA, Egiaztatze Kode Seguruaren bidez egiazta daitekeena helbide honetan: / COPIA AUTÉNTICA que puede ser comprobada mediante el Código Seguro de Verificación en esta dirección:
https://udalenegoitza.araba.eus/barrundia/validacionDoc/?entidad=BARRUNDIA
R0144708b01518185ca07e91ce0b0b04N

acciones de igualdad.

.- En la partida relativa a asistencia técnico-urbanística, se dota de presupuesto para realizar las contrataciones necesarias en orden a actualizar los expedientes del área de urbanismo/medio ambiente y contratar las direcciones de obra externamente.

+ CAPITULO III. Intereses.

Se dota una partida de 300,00 euros.

+ CAPITULO IV.- Transferencias Corrientes.

Las transferencias corrientes presupuestadas para el ejercicio 2026 ascienden a 230.725,00 € y representan un 20,46% del Presupuesto global.

Las principales variaciones habidas en este Capítulo son:

.- Se consolida la partida relativa a la Lautadako Kuadrilla.

.- Se mantienen las becas de euskara.

.- Se fijan las aportaciones a Ozaetako Kontsumitzaileen Elkartea para continuar su labor de mantenimiento del Economato como centro de referencia municipal (distribución, información y turismo).

.- Se aumenta significativamente la partida en lo referente a la línea de subvención de fracción orgánica en base a la nueva situación de gestión de los residuos.

.- Se mantiene la dotación para la asociación Kilimak (asociación de madres y padres de la Eskola Txikia).

.- Se consolida la partida de Garaion Elkartea para continuar con el programa cultural general.

.- Se da continuidad a la partida para consolidar el proyecto de Aumategi Kirol elkartea.

+ CAPITULO VI.- Inversiones reales.

.- Hirigintza arloko aholkularitzari dagokion partidan, lanen zuzendaritza kanpoan hitzartzeko eta hirigintza saileko / ingurugiro arloko agiriak gaurkotzeko beharrezkoak diren hitzarmengintzak burutzeko aurrekontua zuzkitzen da.

+ III. KAPITULUA. Korrituak.

300,00 €ko partida zehazten da.

+ IV. KAPITULUA.- Transferentzia arruntak.

2026rako aurrekontuan azaltzen diren transferentzia arruntak 230.725,00 €-koak dira, eta aurrekontu orokorraren % 20,46 dira.

Kapitulu honetan egondako aldaketa nagusiak honako hauek izan dira:

.- Lautadako Kuadrillari dagokion partida egonkortzen da.

.- Euskarako bekak mantentzen dira.

.- Ozaetako Kontsumitzaileen Elkarteari ekarpenak zehazten zaizkio Ekonomatoaren mantentze lana jarraitzeko xedez, udalerriaren erreferentzia gunea izan dadin (banaketa, informazioa eta turismoa).

.- Partida nabarmen handitu da zatiki organikoko dirulaguntzen lerroari dagokionez, hondakinak kudeatzeko egoera berrian oinarrituta.

.- Kilimak elkarterako (Eskola Txikiko gurasoen elkartea) zuzkidura mantentzen da.

.- Garaion Elkartearen partida egonkortzen da, kultura-programa orokorrarekin jarraitzeko.

.- Aumategi Kirol Elkartearen proiektua sendotzeko partidari jarraipena ematen zaio.

+ VI. KAPITULUA.- Inbertsio errealak.

2026KO AURREKONTU OROKORRAK INBERTSIOAK

BENETAKO KOPIA, Egiaztatze Kode Seguruaren bidez egiazta daitekeena helbide honetan: / COPIA AUTÉNTICA que puede ser comprobada mediante el Código Seguro de Verificación en esta dirección: https://udalenegoitza.araba.eus/barrundia/validacionDoc/?entidad=BARRUNDIA
R0144708b01518185ca07e91ce0b0b04N



Las inversiones previstas para este ejercicio suman 176.014,79 € y representa el 15,61% del Presupuesto global.

Ekitaldi honetarako aurreikusitako inbertsioak 176.014,79 €-koak dira, aurrekontu orokorraren % 15,61.

En este capítulo, se pretende dotar una serie de partidas para desarrollar el proyecto de comedor escolar en el piso superior del edificio que alberga actualmente la Haurreskola, además, se continua con la rehabilitación parcial del edificio del polideportivo mediante obras menores, y, por último, se va a financiar la última anualidad del largo expediente del Plan General de Ordenación Urbana.

Kapitulu honetan, gaur egun Haurreskola dagoen eraikinaren goiko solairuan eskola-jantokiaren proiektua garatzeko zenbait partida jarri nahi dira. Gainera, kiroldegiaren eraikinaren zati bat zaharberritzen jarraituko da obra txikien bidez, eta, azkenik, Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren espediente luzearen azken urterokoa finantzatuko da.

Se espera dotar a este capítulo de la financiación necesaria vía créditos adicionales.

Kapitulu hau kreditu gehigarrien bidez beharrezko finantzaketaz hornitzea espero da.

***6.- CONTENIDO DEL PRESUPUESTO DE INGRESOS.***

***6.- DIRU SARREREN AURREKONTUAREN EDUKIA.***

+ CAPITULO I.- Impuestos Directos.
La cantidad presupuestada para el ejercicio 2026 asciende a 515.204,07 €, suponiendo un 45,69% del Presupuesto global.

+ I. KAPITULUA.- Zuzeneko zergak.
2026 ekitaldian azaltzen den zenbatekoa 515.204,07 €-koa da; hau da, aurrekontu orokorraren %45,69.

Hay un fuerte estancamiento de los ingresos directos derivado de la no modificación de las ordenanzas fiscales en los últimos seis ejercicios.
A pesar de lo anterior se ha actualizado el tipo de aplicación a los bienes urbanos del impuesto sobre bienes inmuebles con lo que se espera un aumento de recaudación de 20.000,00 euros.

Zuzeneko diru-sarreren geldialdi handia dago, azken sei ekitaldietan ordenantza fiskalak ez aldatzearen ondorioz.
Hala eta guztiz ere, eguneratu egin da ondasun higiezinen gaineko zerga hiri-ondasunei aplikatzeko tasa, eta, horrenbestez, 20.000,00 euro gehiago biltzea espero da.

+ CAPITULO II.- Impuestos Indirectos.
El concepto de impuesto sobre construcciones, instalaciones y obras aumenta con respecto al ejercicio 2025; así, se presupuesta en 35.000,00 €, que representa un 3,10 % del Presupuesto global.
Se espera un crecimiento en la concesión de licencias en el presente

II. KAPITULUA.- Zeharkako zergak.
Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zergaren kontzeptua gehitzen da 2026ko ekitaldiari dagokionez; horrela, 35.000,00 €ko aurrekontua dauka, aurrekontu orokorraren % 3,10, hain zuzen ere.
Ekitaldi honetan lizentziak ematean hazkunde handia espero da, baina



| Agiriaren sinatzailea: / Documento firmado por: | Kargua / Cargo: | Data / Fecha: |
| --- | --- | --- |
| IGOR MEDINA ISASA (BARRUNDIAKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE BARRUNDIA) | Alkatea / Alcalde | 24/11/2025 13:07 |

BENETAKO KOPIA, Egiaztatze Kode Seguruaren bidez egiazta daitekeena helbide honetan: / COPIA AUTÉNTICA que puede ser comprobada mediante el Código Seguro de Verificación en esta dirección: https://udalenegoitza.araba.eus/barrundia/validacionDoc/?entidad=BARRUNDIA
R0144708b01518185ca07e91ce0b0b04N



ejercicio, pero por el principio de prudencia se aumenta someramente lo liquidado en el ejercicio 2025.

+ CAPITULO III.- Tasas y otros ingresos.

El Capítulo de Tasas y otros Ingresos, con una previsión de ingresos de 107.950,00 €, supone un 9,57% del Presupuesto global.

En este capítulo, la partida de ingresos correspondiente a la tasa por expedición de licencias urbanísticas se convierte en el principal elemento de ingreso corriente, junto con la tasa por gestión de residuos solidos urbanos que aumenta significativamente.

+ CAPITULO IV.- Transferencias Corrientes.

Las transferencias corrientes presupuestadas para el ejercicio 2026 suman 426.596,17 €, y suponen un 37,83 % del Presupuesto global.

Hay un pequeño aumento de la partida correspondiente al Fondo Foral de financiación municipal que equilibra, en parte, el Presupuesto General del Ayuntamiento.

+ CAPITULO V.- Ingresos Patrimoniales.

Los ingresos patrimoniales presupuestados para el ejercicio 2026 ascienden a 42.800,00 €, y representan un 3,79% del Presupuesto global.

El elemento principal de este capítulo es el canon por ocupación de monte de utilidad pública de la mercantil Eólicas de Euskadi.

+ CAPITULO VII.- Transferencias de capital.

Este capítulo asciende a 0,00 euros.

zuhurtasun-printzipioaren arabera, 2025eko ekitaldian likidatutakoa era apalean gehitzen da.

+ III. KAPITULUA.- Tasak eta bestelako diru-sarrerak.

Tasak eta bestelako diru-sarreren kapitulurako aurreikusitako diru-sarreren kopurua 107.950,00 €-koa da, hau da, aurrekontu orokorraren % 9,57.

Kapitulu honetan, hirigintza-lizentziak emateagatiko tasari dagokion diru-sarreren partida da diru-sarrera arrunten elementu nagusia, hiri-hondakin solidoak kudeatzeagatiko tasarekin batera, zeinak nabarmen egiten baitu gora.

+ IV. KAPITULUA.- Transferentzia arruntak.

2026 ekitaldiko aurrekontuan sartutako transferentzia arrunten aurreikuspena 426.596,17 €-koa da, aurrekontu orokorraren % 37,83 hain zuzen ere.

Udal Finantzaketarako Foru Funtsari dagokion partida pixka bat handitu da, eta horrek, neurri batean, Udalaren Aurrekontu Orokorra orekatzen du.

+ V. KAPITULUA.- Ondare-sarrerak.

2026rako ekitaldiko aurrekontuan sartutako ondare-sarreren zenbatekoa 42.800,00 €-koa da, hau da, aurrekontu orokorraren % 3,79.

Kapitulu honetako elementu nagusia Eolicas de Euskadi merkataritza-sozietatearen onura publikoko mendia okupatzeagatiko kanona da.

+ VII. KAPITULUA. Kapital-transferentziak.

Kapitulu hau 0,00 eurokoa da.

2026KO AURREKONTU OROKORRAK INBERTSIOAK

BENETAKO KOPIA, Egiaztatze Kode Seguruaren bidez egiazta daitekeena helbide honetan: / COPIA AUTÉNTICA que puede ser comprobada mediante el Código Seguro de Verificación en esta dirección: https://udalenegoitza.araba.eus/barrundia/validacionDoc/?entidad=BARRUNDIA
R0144708b01518185ca07e91ce0b0b04N



Corresponde al 0,00 % de los Presupuestos Generales de ingresos.

Diru-sarreren aurrekontu orokorren % 0,00ri dagokio.

Ozaeta (Barrundia),
EL ALCALDE

Ozaetan (Barrundia),
ALKATEA

2026KO AURREKONTU OROKORRAK INBERTSIOAK

| Agiriaren sinatzailea: / Documento firmado por: | Kargua / Cargo: | Data / Fecha: |
| --- | --- | --- |
| IGOR MEDINA ISASA (BARRUNDIAKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE BARRUNDIA) | Alkatea / Alcalde | 24/11/2025 13:07 |